



Euskararen Nazioarteko Eguna Ba al dakizu...?

Euskararen Nazioarteko Eguna euskararen aldeko jai eguna da, eta abenduaren 3an egiten da.

Baina...

Ba al dakizu...

Frantzizko Xabierrekoa abenduaren 3an hil zen, eta hil aurreko azken hitzak euskaraz izan ziren. Horregatik ospatzen da Abenduaren 3an Euskararen eguna.

Ba al dakizu...

1930ean Eusko Ikaskuntzak erabaki zuen euskararen eguna ospatzea.

Ba al dakizu...

Euskararen eguna ospatzeko arrazoi hau eman zuten: "lotsa handia izango zen euskaldunok geure hizkuntza hiltzen ikustea".

Ba al dakizu...

Frankok frankismo garaian euskaraz hitz egitea debekatu zuen Hego Euskal Herrian (Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroan), eta ezin zen ospatu eguna. Baina Ipar Euskal Herrian eta Amerikako leku batzuetan urtero ospatu zuten.

Ba al dakizu...

1995ean Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak Euskararen Nazioarteko Eguna ofiziala izendatu zuten.

Ba al dakizu...

Mexiko, Bartzelona, Washington, Buenos Aires, Paris eta beste leku batzuetan ere euskararen eguna ospatzen da.

Ba al dakizu...

2016an Euskararen erabilera bultzatzeko ikur bat sortu zuten jendea euskaraz hitz egitera bultzatzeko.



Behin testua irakurrita, bilatu galderen erantzuna testuan, eta azpimarratu. Ondoren erantzun galderak ikasi dugun bezala.

1. **Zergatik** ospatzen da abenduaren 3an?

.....

.....

2. **Noiz** hasi zen euskararen eguna ospatzen?

.....

.....

3. **Zergatik** ospatzen da Euskararen Eguna?

.....

.....

4. **Nork** eta **non** debekatu zuen euskaraz hitz egitea?

.....

.....

5. **Non** ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna?

.....

.....

6. **Noiztik** da Euskararen Eguneko logoa Euskararen Txantxangorria?

.....

.....